



## **Gorbeialdeko Kuadrilla: administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa 2023-2027**

### **Atarikoak**

Gorbeialdeko Kuadrillaren administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko martxan jarriko ditugun estrategien multzoa jasotzen du dokumentu honek.

Planaren jarraipena egiteko ardura Gorbeialdeko Kuadrillako euskara zerbitzuak izango du, horretarako izendatutako lan-taldearekin batera.

Plan honen gidari izango dira 2023-2027 epealdirako Gorbeialdeko Kuadrillaren batzarrak onartutako hizkuntza-irizpideak.

### **Plan estrategikoaren egitura**





## **I. KUDEAKETA**

### **1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA**

**Egoera:** Une honetan, esan daiteke euskararen erabileraren sistematizazioaren atarian gaudela, Gorbeialdeko Kuadrillan. Aurreko epealdiko planean ezarritako hizkuntza irizpideen nolabaiteko jarraipenari esker iritsi gara gaur egungo egoerara.

**Helburu estrategikoa:** Une honetako "atariko" sistematizazio-egoeratik, sistematizazio osora igarotzea.

<b>1.0.1.2 Adierazlea</b>	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da		
<b>Helburua</b>	Euskara planaren jarraipena egingo duen lan-taldearen bidez, jarraipen sistematiko hori gauzatzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>1.0.1.3 Adierazlea</b>	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberitzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (Inpaktua euskararen indarberitzean).		
<b>Helburua</b>	Lan-taldeak gidatuta, Gorbeialdeko Kuadrillaren hizkuntza-irizpideen arabeko lan-jardun eta politika publikoak martxan jartzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%75	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

### **1.0.2 arloa. LIDERGOA**

**Egoera:** Une honetan, Gorbeialdeko Kuadrillako arduradun tekniko eta politikoez ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzeko jarrera proaktiboa erakusten dute.

**Helburu estrategikoa:** Arduradun politiko eta teknikoek, jarrera proaktiboaz gain, parte hartze erreala izatea, erakundearen hizkuntza-kudeaketan.

<b>1.0.2.4 Adierazlea</b>	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.		
<b>Helburua</b>	Erabilera planaren lan-taldea osatu, eta lan egiteko sistema jarraitua eta eraginkorra ezartzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100



<b>1.0.2.5 Adierazlea</b>	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.		
<b>Helburua</b>	Lan-taldeak egindako lanaren eraginez, arduradunek, oraingoek eta berriek, daukaten jarrera proaktiboa sistematizatzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%50	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

### 1.0.3 arloa. LANGILEAK

**Egoera:** Langileek jarrera ona dute euskararen erabilera areagotzeko martxan jartzen diren estrategien aurrean, baina estrategia-multzo hori (plana) sistematizatzea falta da, eguneroko lanean benetako eragina izan dezan.

**Helburu estrategikoa:** Langileei (oraingoei eta berriei) onartutako hizkuntza irizpideen eta martxan jartzen diren estrategien gaineko informazio jarraitua ematea.

<b>1.0.3.8 Adierazlea</b>	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte		
<b>Helburua</b>	Langileei (oraingoei eta berriei) hizkuntza-irizpideen gaineko informazio jarraitua emango zaie, eta lan-taldeak jarraipena egingo dio hizkuntza-irizpideen betetze-mailari.		
<b>Hasierako egoera</b>	%88.60	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

### 1.0.4 arloa. HIZKUNTZA GAITASUNA

**Egoera:** Une honetan Gorbeialdeko Kuadrillaren ia plantilla osoa da gai bere lanpostuko funtzioak euskaraz betetzeko. Hala ere, epe laburrean ez dugu, zentzu horretan, aldaketarik aurreikusten.

**Helburu estrategikoa:** Hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten jarraipena egin eta egin behar diren eguneratzeak egitea, langileen formazio-aukerekina lotuta.



<b>1.0.4.12 Adierazlea</b>	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko		
<b>Helburua</b>	Hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten jarraipena egin eta egin behar diren eguneratzeak egitea.		
<b>Hasierako egoera</b>	% 85	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%85

<b>1.0.4.13 Adierazlea</b>	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko		
<b>Helburua</b>	Hizkuntza-eskakizunen eta derrigortasun-daten jarraipena egin eta egin behar diren eguneratzeak egitea, eta hala behar duten langileei idatzizko euskararen erabilerarekin lotutako formazioa ematea.		
<b>Hasierako egoera</b>	% 85	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%85

<b>1.0.4.14 Adierazlea</b>	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko		
<b>Helburua</b>	Kuadrillaren batzarra osatzen duten arduradun politikoekin bakoitzaren gaitasunaren arabera hizkuntza-harremana ezartzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

### **1.0.5 arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA**

**Egoera:** Gorbeialdeko Kuadrillak ez du, une honetan, bere administrazioan euskararen erabilera sustatzeko duen strategiaren komunikazio-lanik egiten.

**Helburu estrategikoa:** Gorbeialdeko Kuadrillako herritarrei onartutako hizkuntza-irizpideen berri ematea, eta irizpide horiek betetzeko mezu proaktiboak ematea.

<b>1.0.5.15 Adierazlea</b>	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.		
<b>Helburua</b>	Gorbeialdeko Kuadrillako herritarrei onartutako hizkuntza-irizpideen berri ematea, eta irizpide horiek betetzeko mezu proaktiboak ematea.		



<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100
-------------------------	----	------------------------------	------

### 1.0.6 arloa. HIZKUNTZA KLAUSULAK

**Egoera:** Une honetan, Gorbeialdeko Kuadrillak ez du bere kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzeko kudeaketa-sistematik.

**Helburu estrategikoa:** Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzeko kudeaketa-sistema ezarri, eta lan-taldearen jarraipenaren bidez eraginkorra dela egiaztatzea.

<b>1.0.6.17 Adierazlea</b>	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.		
<b>Helburua</b>	Euskara zerbitzuak kontratu motaren arabera klausulak proposatzea, kontratu bakoitzaren kontratazio-organoari.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>1.0.6.19 Adierazlea</b>	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari		
<b>Helburua</b>	Euskara zerbitzuak, lan-taldearekin koordinatuta, jarraipena egitea kontratazio-organo bakoitzari, hizkuntza-klausulak betetzen direla bermatzeko.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100



## 2. ardatza. ERABILERA

**Erronka:** Gorbeialdeko Kuadrillako administrazioko euskararen erabilera areagotzea, onartutako hizkuntza-irizpideak beteta.

### 2.1. ZERBITZU HIZKUNTZA

#### 2.1.1. arloa. IRUDIA

**Egoera:** Oro har, Kuadrillak kanpora begira duen iruditeria elebitan egotearen irizpidea barneratuta dago, eta ondo betetzen da.

**Helburu estrategikoa:** Gorbeialdeko Kuadrillaren irudiari dagokionez, onartutako hizkuntza-irizpide berriak betetzea, eta jarraipena egitea, lan-taldearen bidez.

<b>2.1.1.21 Adierazlea</b>	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.		
<b>Helburua</b>	Gorbeialdeko Kuadrillaren irudiari dagokionez, onartutako hizkuntza-irizpide berriak betetzea, eta jarraipena egitea, lan-taldearen bidez.		
<b>Hasierako egoera</b>	%88	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>2.1.1.22 Adierazlea</b>	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude		
<b>Helburua</b>	Gorbeialdeko Kuadrillaren irudiari dagokionez, onartutako hizkuntza-irizpide berriak betetzea, eta jarraipena egitea, lan-taldearen bidez.		
<b>Hasierako egoera</b>	%100	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>2.1.1.23 Adierazlea</b>	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.		
<b>Helburua</b>	Gorbeialdeko Kuadrillaren irudiari dagokionez, onartutako hizkuntza-irizpide berriak betetzea, eta jarraipena egitea, lan-taldearen bidez.		
<b>Hasierako egoera</b>	%20	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100



<b>2.1.1.24 Adierazlea</b>	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak		
<b>Helburua</b>	Gorbeialdeko Kuadrillaren irudiari dagokionez, onartutako hizkuntza-irizpide berriak betetzea, eta jarraipena egitea, lan-taldearen bidez.		
<b>Hasierako egoera</b>	%100	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

### 2.1.2. arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

**Egoera:** Kuadrillaren administrazio-langileek egiten duten hizkuntza-harrerak jauzi kualitatibo bat egin du azken urteotan. Hala ere, sail zehatzetan, badago zer hobetua.

**Helburu estrategikoa:** Onartutako hizkuntza-irizpideak ardatz, euskarazko harrera eta eskaintza sistematizatzea herritarrekin harremana duten sail guztietan, eta harrera hori aktiboa izan dadin saiatzea.

<b>2.1.2.25 Adierazlea</b>	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen		
<b>Helburua</b>	Lehenengo hitza euskaraz egitearen irizpidea barneratu eta sistematizatzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%61,8	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>2.1.2.26 Adierazlea</b>	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz		
<b>Helburua</b>	Euskarazko zerbitzua eskatzen duten herritarrei administrazio-prozedura osoa elebitan edo euskaraz izateko bidea sistematizatu.		
<b>Hasierako egoera</b>	%90,9	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>2.1.2.27 Adierazlea</b>	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira		
--------------------------------	---	--	--



<b>Helburua</b>	Kuadrillaren eskaintza aztertu eta eskainitako euskarazko ekitaldi eta ikastaroen kopurua handitu.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%40

<b>2.1.2.28 Adierazlea</b>	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak		
<b>Helburua</b>	Kuadrillak sortutako dokumentuak ele bietan bidaltzeko irizpidea sistematizatu, eta jarraipena egin.		
<b>Hasierako egoera</b>	%100	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

<b>2.1.2.29 Adierazlea</b>	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz		
<b>Helburua</b>	Euskarazko zerbitzua eskatzen duten herritarrei administrazio-prozedura osoa elebitan edo euskaraz izateko bidea sistematizatu.		
<b>Hasierako egoera</b>	%100	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

## 2.2. LAN-HIZKUNTZA

### 2.1.1. arloa. BARNE-HARREMANAK

**Egoera:** Gorbialdeko Kuadrillaren barne-funtzionamendua gaztelaniaz da oro har, salbuespenak gero eta ohikoagoak diren arren.

**Helburu estrategikoa:** Gutxinaka, Kuadrillako langileen arteko harreman formaletan (lan-harremana) euskararen erabilera handitzea.

<b>2.2.1.33 Adierazlea</b>	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da		
<b>Helburua</b>	Lankideen arteko ahozko lan-harremanean euskararen erabilera sustatzeko estrategiak martxan jartzea.		





<b>Hasierako egoera</b>	%43.6	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%70
-------------------------	-------	------------------------------	-----

<b>2.2.1.35 Adierazlea</b>	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira		
<b>Helburua</b>	Lankideen arteko idatzizko lan-harremanean euskararen erabilera sustatzeko estrategiak martxan jartzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%63.6	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%70

<b>2.2.1.36 Adierazlea</b>	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.		
<b>Helburua</b>	Prozedura administratibo bat hasten denean, edo espediente bat irekitzen denean, prozeduraren pauso bakoitza zein hizkuntzatan egingo den erabakitzeko irizpidea ezartzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%40

## 2.2.2. arloa. KANPO-HARREMANAK

**Egoera:** Kanpo-harremanetan asko dago egiteko oraindik, eta, lehentasunak jartzekotan, administrazio publikoarekin ditugun harremanetan jarri behar genituzke, normalkuntzan aurrera egiteko aukera handiena ematen duen sektorea baita.

**Helburu estrategikoa:** Onartutako hizkuntza-irizpideak ardatz, euskarazko harrera eta eskaintza sistematizatzea herritarrekin harremana duten sail guztietan, eta harrera hori aktiboa izan dadin saiatzea.

<b>2.2.2.40 Adierazlea</b>	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.		
<b>Helburua</b>	Sektore publikoa, xede-talde modura, hartzaile bereizi gisa hartzea, eta euskaraz edo ele bietan dokumentuak bidaltzeko irizpidea sistematizatzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%20	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%70



### 2.2.3. arloa. PRESTAKUNTZA

**Egoera:** Formazio-eskaintza, oro har, gaztelaniaz da Gorbeialdeko Kuadrillan.

**Helburu estrategikoa:** Eskaintzen diren formazio-aukera guztiak euskaraz izateko aukera sustatzea, parte-hartzaileen gaitasuna edozein izanik ere.

<b>2.2.3.43 Adierazlea</b>	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.		
<b>Helburua</b>	Eskaintzen diren formazio-aukera guztiak euskaraz izateko aukera sustatzea, parte-hartzaileen gaitasuna edozein izanik ere.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%80

<b>2.2.3.45 Adierazlea</b>	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.		
<b>Helburua</b>	Langileen hizkuntza-gaitasunaren arabera, bakoitzaren hizkuntza-trebakuntzarako beharrak aztertu, eta horien arabera eskaintza egitea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%0	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%100

### 2.2.4. arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

**Egoera:** Oro har, eskura ditugun aplikazio informatikoen gaztelaniazko bertsioa erabiltzen da Gorbeialdeko Kuadrillan.

**Helburu estrategikoa:** Aplikazioen euskarazko bertsioaren erabilera sustatzea.

<b>2.2.4.47 Adierazlea</b>	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.		
<b>Helburua</b>	Baliabideen euskarazko bertsioaren berri eman, eta horren erabilera sustatzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%33.6	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%60



### 2.2.5. arloa. SORTZE-HIZKUNTZA

**Egoera:** Euskaraz edo ele bietan sortzen diren dokumentu gehienak langileek beraiek sortzen dituzte, eta euskara zerbitzuaren egitekoa gero eta gehiago da zuzentzailearena, itzultzailearena baino.

**Helburu estrategikoa:** Dokumentuen sortze-hizkuntzari buruzko irizpide berria sistematizatzea, eta, horren ondorioz, langile bakoitzak euskaraz edo ele bietan sortzen dituen dokumentuen kopurua handitzea.

<b>2.2.5.48 Adierazlea</b>	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.		
<b>Helburua</b>	Dokumentuen sortze-hizkuntzari buruzko irizpide berria sistematizatzea, eta, horren ondorioz, langile bakoitzak euskaraz edo ele bietan sortzen dituen dokumentuen kopurua handitzea.		
<b>Hasierako egoera</b>	%54.5	<b>Aurreikusitako egoera</b>	%80



## Eranskina 2025eko kudeaketa plana

Ardatza	Eremua	Arloa	Adierazlea	Ekintza	Azalpena	Ekintza betetze- maila neurtzeko adierazleak	Hasiera- data	Amaiera- data
1		1.0.1	1.0.1.2	Lan-taldearen bilerak	Euskara planaren jarraipen lan-taldea martxan jarri, eta 2025ean gutxienez 3 bilera egitea, hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egiteko.	3 bilera eraginkor eginda	2024/12/01	2025/12/31
1		1.0.3	1.0.3.8	Langileentzako informazio-euskarriak	Gorbeialdeko Kuadrillako langileei onartutako hizkuntza-irizpideen berri ematea, euskarri erakargarri eta ulerterrazen bidez. Langile berriak sartzen direnerako komunikazio-lan hori sistematizatzea.	Euskarriak diseinatuta eta komunikazioa sistematizatuta.	2024/12/01	2025/02/28
1		1.0.4	1.0.4.14	Batzarkideen hizkuntza-gaitasunaren azterketa	Kuadrillako batzarra osatzen duten batzarkideen hizkuntza-gaitasunaren azterketa egin, galdetegi baten bidez.	Azterketa eta ondoriozko hausnarketa eginda.	2025/01/01	2025/06/30
1		1.0.5	1.0.5.15	Komunikazio-kanpaina	Hizkuntza-irizpideak onartu ondoren, herritarrei begirako	Kanpaina eginda, eta feedback-a neurtuta.	2024/12/01	2025/02/28



					komunikazio-kanpaina egin, horien berri emateko.			
1		1.0.6	1.0.6.17	Hizkuntza-klausulen dokumentua prestatu	Kontratu handi eta txikietarako hizkuntza-klausulen ereduak jasotzen dituen dokumentua prestatu.	Dokumentua eginda, eta teknikariek erabiltzen dutela frogatuta.	2025/01/01	2024/06/28
2	2.1	2.1.2	2.1.2.25	Lehenengo hitzaren kanpaina	Euskaraldiarekin batera, lehenengo hitza euskaraz egitearen aldeko kanpaina egin langileen artean.	Kanpaina eginda, eta eraginkortasuna neurtuta.	2025/04/01	2025/05/30
2	2.2	2.2.1	2.2.1.36	Administrazio-prozeduren azterketa	Experta kudeaketa-sistemaren bidez, Kuadrillak dituen ohikoadministrazio-prozedurak aukeratu eta aztertu, eta bertako pauso bakoitzaren hizkuntza-hautua sistematizatu.	Azterketa eginda eta ohiko prozedurak aukeratuta.	2025/01/01	2025/12/31
2	2.2	2.2.2	2.2.2.40	Administrazioarekiko idatzizko harremanak	Administrazio-erakundeekin Kuadrillaki dituen idatzizko harremanak aztertu, eta horietan euskararen erabilera sistematizatzen hasi.	Harremanak aztertuta, eta ohikoenetan euskararen erabilera sistematizatuta.	2025/01/01	2025/12/31
2	2.2	2.2.3	2.2.3.43	Formazio-aukerak euskaraz	Kuadrillak 2025ean formaziorako dituen aurreikuspenak aztertu,	Euskarazko eskaintza proposatuta.	2025/01/01	2025/12/31



					eta euskarazko eskaintza proposatu.			
2	2.2	2.2.3	2.2.3.45	Euskarazko trebakuntza, formazioan	Langileen hizkuntza-gaitasunaren azterketa egin, eta trebakuntza-beharrak identifikatu ondoren, trebakuntza-saioak egiteko aukerak aztertu.	Trebakuntza-saioen eskaintza eginda.	2025/01/01	2025/12/31
2	2.2	2.2.4	2.2.4.46	Baliabide informatikoen kanpaina	Langileek erabiltzen dituzten baliabide informatikoen euskarazko bertsioa erabiltzeko kanpaina egin.	Kanpaina eginda.	2025/09/01	2025/12/31
2	2.2	2.2.5	2.2.5.48	Dokumentuak sortzea: komunikazioa	Dokumentuak sortzeari buruzko komunikazioa bidali langileei, eta irizpidearen betetze-mailaren jarraipena egin.	Proposatutako irizpidea beteta.	2025/01/01	2024/03/29